

**Langabeziari  
aurre egin!**

# ANTOLATU eta BORROKATU!

## Enplegu politika eraginkorren alde!

**L**angabezia gure gizartearen drama bat da. Hego Euskal Herrian 226.893 langabe daude (2013ko urriko datuak).

**Langabeziaren tasa %17,9etan dago;** EB-28ko tasatik (%11) 6,9 puntu gora. Emakumeen kasuan %19,8koa da (gizonen %16,2koaren aldean). Hortik gorako tasak Estatu espainiarrean (%26,6) eta Grezian (%27,6) bakarrik dituzte.

Langabeen egoera jasanezina da. **Langabeen erdiek (%50) ez dute inolako langabezia-prestaziorik jasotzen,** eta %30,1ek bakarrik jasotzen dute kotizaziopeko prestazioren bat.

**Egoera horri konponbidea bilatzea ez da lehen-tasunezkoa gure agintarientzat.** Aitzitik, etengabeko erreformek eta murrizketek larriagotu baino ez dute egiten langabezia, pobrezia eta babesgabezia. Horretaz jabeturik, beharrezkoa da aurrera egitea borrokan, etsi barik. Langabeen antolakuntza eta borroka sindikatuaren ataza ere bada. Eta ELAn horretan gaude.

**Egoera irauli ahal izateko, langileria osoaren mobilizazioa behar da** —lana dutenen eta ez dutenen indarrak batuz—.

**ALTERNATIBAK BADITUGU.  
DENOK BATERA BAIETZ LORTU!**

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

## Antolatu eta borrokatu!

# ELA-REN PROPOSAMENAK, KALITATEZKO ENPLEGUA SORTZEKO

**ELA**k benetako enplegu-politikatzat hartzeko, kalitatezko enplegua sortzea izan behar du helburu. Eta horretarako aukerak egon badaude, baina borondate politikoa falta da. Besteak beste, ELA-k hurrengo neurri hauek eskatzen ditu:

### 1. Erabateko aldaketa egitea orain arte eraman izan diren aurrekontu- eta zerga-politikan.

Doikuntza- eta murrizketa-politikek langabeziaren igoera handia ekarri dute. Horregatik, beharrezkoa da atzera egitea aurrekontu-politika horietan, eta gastu publikoa igotzea. Erabilitako politikak zeharo aldatu behar dira, ELA-k hainbestetan eskatu izan duen bezala.

### 2. Sektore publikoa garatzea; eta, batez ere, ongizate-estatuarekin loturiko zerbitzu publikoak.

Beharrezkoa da enplegu publikoaren kopurua handitzea osasungintzan, hezkuntzan, gizarte-zerbitzuetan, garraioan... Administrazio publikoei zuzeneko enplegu publikoa sortzeko exijitu behar zaie, azpikontratak erabili beharrean.

### 3. Lanpostu berdeak sustatzea.

Energia berriztagarrietan, hondakinen kudeaketan eta tratamenduan, lurzoruen berronertzean, nekazaritza ekologikoan... eta horrelako jardueretan bereziki sustatu behar da enplegua.

### 4. Lanaldia murriztea, soldata murriztu gabe. Produktio- eta erreproduktzio-lana banatu behar da

- Lanaldia 35 ordura jaitea, soldata jaitsi barik, lana banatzeko neurri gisa.

- Lanaren, familiaren eta norberaren bizitzak uztartzen laguntzea, bide batez enplegua sustatuz (lanaldi-murrizketak, lan-utzialdiak eta abar).

### 5. Soldata-igoerak KPItik gorakoak izatea.

Soldatak igoz gero, enplegu gehiago sortzeko baldintzak hobetuko dira.



### 6. Gutxieneko soldata duina izatea, eta gehieneko errenta bat baimentzea.

- Gutxieneko soldata duin batek lan-baldintza eta bizimodu duinak ziurtatuko ditu.

- Gehieneko diru-sarrera bat baimentzeak aberastasuna metatzea eragotziko du.

### 7. Atzera egitea azken urteotan onetsitako pentsio-erreformetan.

- Ez erretiro-adina atzeratzeari (bestela, langabezia areagotuko da gazte-jendearengan).
- Ez pentsioen erreformari.

## 8. Enpleguari eustea.

- Atzera egitea lan-erreformetan eta negoziazio kolektiboaren erreformetan.
- Ez baimentzea kaleratzerik, ekonomia-, antolamendu- edo ekoizpen-arrazoiak direla-eta.
- Segurtasuna enpleguan: ez baimentzea kaleratze kolektiborik edo arrazoi ekonomikoko kaleratzerik, etekinak dauden bitartean. Enpresak fiskalizatu behar dira, kontratazioan iruzurrik egin ez dezaten, eta berez mugagabeak diren lanpostuak aldi baterako kontratuez bete ez ditzaten.

## 9. Enplegu-zerbitzu sendo bat garatzea, eta kalitatezko prestakuntza-eredu bat garatzea.

- Enpleguaren zerbitzu publikorako bertako eredu bat taxutzea, gure herriaren beharrian sozial eta ekonomikoak kontuan hartuz. Eta enplegurako prestakuntza lanbide-ikastegi homologatuek ematea.
- Lan-bitartekaritza Enplegu Zerbitzu Publikoaren bidez eramatea, eta erakunde pribatuei diruz laguntzeko eta finantzatzeko oraingo sistema alde batera uztea.
- Erabaki-ahalmena izatea enplegu-politiken arloan (aktiboak eta pasiboak).

## 10. Finantza-erakundeen jardunbidea zeharo aldatzea.

Finantza-sistemaren jardueraren norabidea zuzentzea, kreditu-hornikuntzaren xede familiak eta enpresak izan daitezzen.



# Langabeziari aurre egin!



## 11. Industria-politika.

- Proiektu eta produktu egokia dituzten enpresei finantzazioa bermatzea.
- Sektore estrategikoak zehaztea, eta produktu desberdinak eta elkarren osagarriak eskaintzen dituzten enpresen arteko sinergiak bultzatzea berariazko planen bidez.

**PROPOSAMEN HORIEK  
GUZTIAK HERRI-  
ADMINISTRAZIOEI  
IGORRI DIZKIEGU; BAINA,  
ORAIN ARTE BEHINTZAT,  
EZ DUTE BORONDATE  
POLITIKORIK IZAN GURE  
PROPOSAMENAK  
ABIARAZTEKO.  
BISTAKOA DENEZ,  
ZERBAIT LORTU NAHI  
BADUGU HORRETARA  
BEHARTU BEHARKO  
DITUGU.**

LANGABEZIAREN AURREAN...

# LANGABEEN ATALA

**L**angabeziaren inguruko arazoak, batetik, eta kalitatezko enplegua sortzeari begirako enplegu-politika baten eskakizuna, bestetik, ELAren ardatz nagusiak dira.

Azken Konfederazio Kongresuan Langabeen Atala sortu zen, langabeziaren arazoa eta horren gainean guk egiten ditugun eskakizunak sindikatuaren agendan modu ageriagoan txertatzen diren bermatzeko.

Gaur egungo langabezia-tasak jasanezinak dira, milaka eta milaka langile daude egoera horretan bazterkeriatik eta pobreziatik gero eta hurbilago. Patronala egoera horretaz baliatzen da langile-jendea mehatxatzeko eta diziplinatzeko.

**Horregatik, gure asmoa langabeak atal berri horretatik antolatzea da,** eta baita gai horrekiko mobilizazio sindikala eta soziala sustatzea ere.

**Atalaren helburuak ere badira langileria osoaren elkartasuna** eta inplikazioa areagotzea gai horrekiko, langabeziaren arazoa ez baita soilik mugatzen egoera hori pairatu behar dutenengana.

ANTOLATU  
ETA BORROKATU

Langabeziari  
aurre egin!

Exigimos políticas  
reales de empleo

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

**Sortu berri den atala ez da bitartekarritza-sistema bat, ezta enplegua bilatzen laguntzeko zerbitzua ere.** Ez da beste sindikatu batzuetan dau den ereduak bezalakoa.

**BORROKA ANTOLATU  
BEHAR DUGU!**

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA